

# «La Manada» auziko sententziaren jarraipena Twitterren: bortxaketaren kulturari buruzko gizarte-irudikapenak iraultzen

Nahia Idoiaga Mondragon<sup>1</sup>, Martín Sainz de la Maza San Jose<sup>2</sup>  
eta Maitane Belasko Txertudi<sup>3</sup>

<sup>1</sup>Euskal Herriko Unibertsitateko Bilakaera eta Hezkuntzaren Psikologia Saila

<sup>2</sup>Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Psikologian doktoregaia

<sup>3</sup>Euskal Herriko Unibertsitateko Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila

Ikerlan honek «La Manada» izenez ezaguna den talde-bortxaketari buruz Twitterren eraikitako diskurtsoa aztertuko du. Horretarako, epaia plazaratutako egunaren inguruko lau asteetan #lamanada traola zuten txioen edukia analisi lexikal bidez aztertu zen. Emaizetan diskurtso feministaren lanketa nabarmena izan zen mobilizazio sozialera deituaz, biktima babestuz edota bortxaketaren kulturaren kontrako argudioak zabalduaz. Baina diskurtso antifeminista ere plazaratu zen, bereziki biktimari errua egozteko eta diskurtso feministei kontra egiteko. Twitterreko diskurtsoa sexu-erasoei buruzko pentsaeraren isla izan daitekeela ondorioztatzen da, baina aldi berean baita agente aktibo ere jakintza eraldatu horren eraikuntzan.

GAKO-HITZAK: Aktibismo digitala · Bortxaketa · Bortxaketaren kultura · Feminismoa · Mugimendu feminista · Twitter.

## The sentence of «La manada» on twitter. Revolutionizing social representations about the rape culture

This paper aimed to know discourse built on Twitter about the case of group rape called «La Manada» and to observe its impact on society. To this end, an analysis of the lexical content was carried out on the tweets that were published with the hashtag #lamanada for 4 weeks around the publication of the sentence. Two interpretations are generally highlighted: The feminist discourse, which called for social mobilization, defended the victim and spread the discourse against the culture of rape and the anti-feminist discourse, which blames the victim and goes against the feminist discourse.

KEY WORDS: Digital activism · Rape · Culture of rape · Feminism · Feminist movement · Twitter.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.110.2019.5>

*Jasotze data:* 2019-01-13

*Onartze data:* 2019-03-18

## 1. Sarrera

### «La Manada» auzia

Azken urteotako sexu-eraso kasuen artean oihartzun sozial bereziki nabaria izan du «La Manada» auziak. Auzi hori Iruñean, Nafarroan, 2016ko uztailaren 7an San Fermin jaietan gertaturiko sexu-indarkeria kasua da. Emakume batek salatu zuen bost gizonezko osatutako talde batek bortxatu zuela Iruñeko eraikin bateko korridorean. Akusatu guztiak atxilotu zituzten, Guardia Zibileko eta Espainiako Armadako kide bana haien artean, espetxeratu eta epaituak izan ziren (Jones, 2018).

Epaia 2018ko apirilaren 26an iragarri zen, auzitegiak sexu-abusutzat jo zuen gertakaria eta ez zuen onartu sexu-erasoa egon zenik bortxaketan (Jones, 2018). Espainiar legediari jarraiki, sexu-erasoak izango lirateke sexu-indarkeriaz edo larderiak burututako sexu-jarduerak; sexu-abusuak, aldiz, indarkeria gabe burututakoak lirateke (Ceberio, 2018). Gainera, hiru epailetako batek, Ricardo Gonzalez-ek, akusatuen absoluzioaren alde bozkatu zuen, bost gizonak errugabe zirela esanaz, gertatutakoa festa-giroan guztien artean gogotsu bitzako sexu-jarduera zela uste zuelako.

Epaia ostean, hura salatzeke manifestazioak deitu ziren Euskal Herriko eta Espainiako herri gehienetan (Jones, 2018). Gainera, sare sozialek eztanda egin zuten eta «La Manada» kasua gai nabarmenena (*trending topic*) izan zen hainbat aldiz (Asenjo, 2018). Talde feministek ere epaia gogor salatu zuten, etorkizuneko kasuetarako aurrekari beldurgarria izan zitekeela aldarrikatuaz (Alvarez, 2018). Artikulu honetan «La Manada» kasuak sare sozialetan, zehazki, Twitterren, izandako plazaratzea landu eta aztertuko dugu, eta eztabaidagai izango dugu eraso sexualekiko irudikapen partekatuetan izan dezakeen garrantzia.

### Aktibismo feminista digitala

Kultura modernoetan, sare sozialak gizarte-aldaketa sustatzen duten oinarrizko eragileak dira eta, ondorioz, lanketa feministak jorratzeko eta zabaltzeko baliabide baliotsu bihurtu dira (Stubbs-Richardson, Rader eta Cosby, 2018). Komunikabide digitalak gai politikoen inguruko antolakuntza-tresna gisa erabiltzen ari dira (Chattopadhyay, 2011; Juris, 2008; Mendes, 2015), eztabaida eta ekintza-hedapeneko komunitateak eraikitzeke (Gerbaudo, 2012; Lim, 2012), baita informazioa hedatzeko online eta offline espazio gisa ere (Lim, 2012). Twitter bezalako sareen ospeari esker, banakoek espazio publikoetan eragin dezakete (Westerman, Spence eta Heide, 2014) eta, era horretan, gertaera garrantzitsuenak berreraiki jakintza publikoarentzat (Murthy, 2010; Westerman *et al.*, 2014).

Gainera, 2010. urteaz geroztik, mundu mailako mugimendu feministak patriarkatuarekin, sexismoarekin, misoginiarekin, genero-indarkeriarekin eta desberdintasunekin lotutako hainbat gai buruzko arreta eta kontzientzia zabaltzeko nahian irmoki dabilta sare sozialetan lanean (Baer, 2016; Turley eta Fisher, 2018). Lanketa horretan bereziki gai garrantzitsutzat jo dute bortxaketaren kulturaren aurka lan egitea (Keller, Mendes eta Ringrose, 2018; Mendes, 2015; Sills *et al.*, 2016). Izan ere, sare sozialen bidez gizarteko talde zabalei formazio feminista eskaintzeko

aukera dago (Sills *et al.*, 2016). Adibide gisa, Twitterreko kanpaina feministek bultzatutako *hashtag* edo traolak<sup>1</sup> oso baliagarriak izan dira bortxaketaren kulturaz gain, sexismoa, misoginia edota bortxaketari buruzko mitoak salatzeke eta haiei buruzko eztabaida-espazioak sortzeko (Turley eta Fisher, 2018). Hala eta guztiz ere, azpimarratu beharra dago antifeminismoak ere sare sozialetan presentzia nabarmena duela, eta sarri mundu digitalak bortxazko kultura ugaritzeko plaza gisa jokatzeko duela (Jackson, 2018; Keller *et al.*, 2018).

Halaber, hainbat ikerketak sare sozialetan sexu-eraso eta bortxaketek izandako trataera aztertu dute. Ikerketa-gaien artean azpimarragarrienak hauek izan dira: komunikabideetan famatu bihurtutako bortxaketa-kasuen jarraipena (adb.: Barca, 2018; Moody-Ramirez *et al.*, 2015; Pennington eta Birthisel, 2016; Woods, 2014), nerabeek jasandako erasoei buruzko kontaketen jarraipenak (Wellman, Reddington eta Clark, 2017) edota sexu-erasoak jasandako biktimen erruduntasunari buruzko eztabaidak (Stubbs-Richardson *et al.*, 2018). Ikerketa horietatik ondoriozta daiteke sare sozialak biktimak babesten dituztenen eta bortxaketaren kultura sustatuz biktimak erasotzen dituztenen arteko eztabaida- eta gatazka-plaza bihurtu direla (Stubbs-Richardson *et al.*, 2018).

## Bortxaketaren kultura

Baina, zer da bortxaketaren kultura? Bortxaketaren kultura eraikuntza soziala da, gizabanako zein gizartearen mailan. Horren bidez, sexu-indarkeria urteetan zehar iraunkorra eta justifikatua izan da (Edwards, Turchik, Dardis, Reynolds eta Gidycz, 2011). Hau da, bortxaketaren kulturak bultzatutako uste eta balioek bortxaketa onartzen duen ingurunea sortzen dute, emakumeen sexu-objektibazioaren bidez, biktimen estigmatizazioa bidez eta bortxaketaren justifikazioaren bidez (Boswell eta Spade, 1996).

Bortxaketaren bidez kultura hainbat mitotan oinarrituta dago. Mito horiek bortxaketa, bortxatu eta bortxatzaileei buruzko estereotipo edo sinesmen faltsuak dira, zeinek bortxaketen biktimen aurkako ingurunea bultzatzen duten (Burt, 1980). Payne, Lonsway eta Fitzgerald (1999) zortzi bortxazko mito ohikoenak identifikatu zituzten: «Berak eskatu zuen»; «Nahi zuen»; «Gezurretan ari da gertatutakoari buruz»; «Ez zen bortxaketa izan, nahitako harremana baizik»; «Bortxatzaileak ez zuen minik egin nahi»; «Bortxaketa ez da hainbesterako» eta «Bortxaketa gertaera desbideratu bat da». Bortxazko mitoak diskurtso erlijioso, sozial eta juridikoetan aurkitzen dira (Edwards *et al.*, 2011) eta eragina dute bai biktimetan baita sexu-erasoak epaitzen dituzten justizia-arloko aktoreek hartutako erabakietan ere (Sacks, Ackerman eta Shlosberg, 2018).

Biktimak erruduntzat jotzea ere bortxaketaren kulturaren osagai bereziki garrantzitsua da. Erru-prozesu horren bidez banakoak biktimatik urrundu egiten dira, eta, aldi berean, bortxatzaileak, bereziki maila sozial altukoak direnean, errugabetzat jotzen dira (Ryan, 1971). Biktimak errudun kontsideratuz gertatutakoaren erantzule

1. Mezu labur azkarrak idazteko sare sozial honek baditu mila terminologia, horien artean *hashtag* hitza dugu. Elkarrizketa bat sortzeko # ikurra eta hitzen bat jarriaz sortzen dena. Euskal munduan *hashtag* hitza TRAOLA bezala erabiltzen hasia da, Twitter euskaratu zutenetik.

bihurrazten dira, besteak beste, haien erakargarritasunagatik, janzkeragatik, alkohola edateagatik, «segurua» ez zen eremu batean ibiltzeagatik edota «behar beste» erasotzaileari kontra ez egiteagatik (Brown, Testa eta Messman-Moore, 2007; Durham, 2013; Moody-Ramirez, Lewis eta Murray, 2015; O'Hara, 2012). Faktore horiek guztiak iradokitzen dute biktimak jokabide arriskutsuak zituela jakin behar zuela eta, ondorioz, bere burua arriskuan jartzen zegoenez, bera dela gertatutakoaren erruduna (Moody-Ramirez *et al.*, 2015).

Artikulu honetan, «La Manada» kasua gizarte-irudikapenen teoriaren ikuspuntutik landuko da (Moscovici, 1988; Wagner eta Hayes, 2005). Gizarte-irudikapenak bi funtzio betetzen dituzten balioak, ideiak eta praktikak dira. Alde batetik, bizi garen inguruan norberaren burua orientatzeko aukera finkatzen dute, eta, bestetik, gizarteko eta taldeetako kideen arteko komunikazioa ahalbidetzen dute (Moscovici, 1984). Gizarte-irudikapenen teoriaren ikuspegitik argudiatzen da eguneroko diskurtsoak alde aurretik izaniko esperientzietan oinarritzen direla (norberarenak zein besteenak) eta komunikabideek eta elkarrekintza sozialek hedatzen dituztela (Duveen eta Lloyd, 1990).

Gizarte-irudikapenen teoriaren barruan, *Collective Symbolic Coping* (CSC) (Wagner, Kronberger eta Seifert, 2002) izenekoak azaltzen du nola ematen dieten taldeek esanahia gizarte-ordena arriskuan jartzen duten egoera berriei, «La Manada» auzia kasu. CSCa gizarte-irudikapenen (Moscovici, 1988, Wagner eta Hayes, 2005) eta agenda setting (MacCombs, 2004) teoriaren interfazeetatik sortu zen, maila kolektiboko *coping*-a edo aurre egitea nabarmenduaz. Beste era batera esanda, komunikazio-sare baten parte izanik, bai gizabanako gisa bai eta taldeko kide gisa ere, gai edo erronka berri bati nola aurre egiten zaion deskribatzen du (Orr, Sagi eta Bar-On, 2000; Wagner, 1998).

Maila klinikoan gertatzen den bezala, arazoei buruzko eztabaida publikoak eragin handia du gizarteak gertakari traumatiko jakin bati esanahia emateko prozesuan (Pennebaker eta Harber, 1993). Esparru publikoko gertaera esanguratsuak azaltzeko ahaleginean, CSCak proposatzen du *coping* edo aurre egite hori bereziki komunikabideen diskurtsoaren bidez gauzatzen dela, kasu honetan sare sozialen bidez.

Horren ondorioz, CSCaren bidez sortutako irudikapenek gizarteari gertakari berriak interpretatzeko tresnak eskaintzen dizkiote (Gilles *et al.*, 2013). Prozesu horrek ordea, zenbait fase bete behar ditu (Wagner *et al.*, 2002). Fase hauek dira: 1) Kontzientzia hartzea, hau da, gertaera gizartearentzat garrantzitsutzat jotzea da. 2) Desadostasuna (dibergentzia), gertaeraren interpretazio desberdinak sortzen dira, anbiguitasuna eta nahasmena sortuaz. 3) Konbergentzia, taldeak hitzarmen bat onartzen du interpretazio berri bat eraikitzeko (Bartlett, 1932). 4) Normalizazioa, gertakari berriaren azalpena ezagutza komunean integratuta dago eta, beraz, gizarteak onartzen du. Honenbestez, sare sozialak gizarte-irudikapenen CSCaren bidez-ko bilakaera aztertzeko iturri paregabeak izan daitezke, ingurune naturalistan ebaluatzeko aukera eskaintzen dutelako. Izan ere, Twitterren iritziak modu ireki eta bat-batekoan eztabaidatzen dira denbora errealean (Stubbs-Richardson *et al.*, 2018).

## Helburu eta hipotesiak

Honenbestez, sare sozialek, eta bereziki Twitterrek, egun pil-pilean dauden gaiei buruzko gizarte-irudikapenak isla ditzakete, «La Manada» auzian gertatutakoaren gisara, jendartea mehatxatzen duten gertaera berriei esanahia nola ematen zaien erakutsiaz. Beraz, ikerketa honen helburu nagusia «La Manada» auziari buruz Twitterren plazaratutako diskurtsoa aztertzea da, haren bidez landutako esanahi sinbolikoa argitzeko. Hau da, lan honen jomuga da «La Manada» auziak zer esanahi izan duen eta sare sozialen bidez, *Collective Symbolic Coping* prozesuari jarraiki, nola aurre egin zaion. Horretarako, auzia hau pil-pilean zegoen unean Twitterren izandako jarraipena aztertu dugu, zehazki epaia ezagutzera eman zen inguruko asteetan.

Auzi honi buruz Twitterren landutako diskurtsoa kontrajarria izatea espero da. Horrela, alde batetik, diskurtso feministak modu argi eta indartsuan agertzea espero da, bereziki biktima babestuz, marko teorikoan aipatu dugun azken urteetako aktibismo digital feministari jarraiki. Diskurtso feministek bortxaketaren kultura eta hura babesten dutenak (erasotzaile, epai, etab.) salatuko dituzte. Bestalde, bortxaketaren kultura eta mitoak bultzatuko dituen diskurtso sexista ere agertzea espero da, bereziki biktimaren erruduntasuna argudiatuz, antzeko beste kasuetan gertatu den erara. Bi diskurtsoetan traolen erabilera indartsua egitea espero da Twitterren zabalkundeetan esanahi bereziki garrantzitsua hartu duten lanabesak baitira traolak. Horregatik, bai talde feministek bai antifeministek erabilitako traolak unean-unean aldatzen joatea espero da. Honenbestez, eta aipatutako guztiaren ondorio gisara, «La Manada» auziaren gizarte-eraikuntza polemikoak eraso sexualeri buruzko gizarte-irudikapenetan eragin nabarmena izatea espero da.

## 2. Metodologia

### 2.1. Datu-bilketa

Twitterreko mezuen edo txioen<sup>2</sup> lagina sortzeko, *streaming* API bidez lau astetan zehar #lamanada traola izan zuten txio guztiak bildu ziren. Guztira, «La Manada» kasuari buruzko 3.822 txio bildu ziren Twitterren diskurtsoaren analisi lexikoari jarraitzeko. Txioak edo mezuak «La Manada» auziko epaia plazaratu zen dataren, hots, 2018ko apirilaren 26aren, inguruko lau astetan zehar bildu ziren, zehazki apirilaren 18tik maiatzaren 17ra bitartean. Aste horiek honela kodetu ziren: 0 Astea (apirilaren 18tik apirilaren 25era), 1 Astea (apirilaren 26tik maiatzaren 2ra), 2 Astea (maiatzaren 3tik 9ra) eta 3 Astea (maiatzaren 10etik 17ra).

### 2.2. Edukiaren analisisa

Jasotako txioen analisi lexikala egiteko eta kasu horietan ohiko diren fidagarritasun- eta baliozkotasun-arazoak ekidin nahian (Klein eta Licata, 2003; Reinert, 1996), Reinert metodoa darabilen Iramuteq *softwarea* erabili zen (Reinert,

---

2. Txioak Twitter gizarte-sarean erabiltzaileek parteka ditzaketen testu soileko mezu laburrak dira. Gehienez 280 karaktere izan ditzake txio bakoitzak

1983, 1990). Metodo horren helburu nagusia testua kuantifikatzea da, haren estruktura garrantzitsuenak erauziz testu-datuei datxekien informazio oinarritzkoena erabili nahian. Hau da, metodo horren bidez aipaturiko txio guztietan errepikatzen diren gai edo klase nagusiak identifikatu ahalko dira. Gainera, analisi lexikalaren teknika baliagarria da gizarte-irudikapenen edukia aztertzeko, arloko ikerketa klasikoek emaitzekin bat baitator (Lahlou, 1996a, 1996b).

Softwareak burututako analisiaren lehenengo urratsa corpusa testuinguruko oinarritzko unitatetan (*Elementary Contextual Units*, ECU) banatzea da, zeinak esaldi batez edo biz osatuta dauden (30-50 hitz inguru) (Kronberger eta Wagner, 2000). ECUak eta hitz-erroak gurutzatu egin dira kontingentzia-taula bat sortzeko, zeinak hiztegiaren banaketa azalduko duen ECUEkiko. Kontingentzia-taula horretatik abiatuta, distantzia karratuen matrize bat sortzen da, non, bi ECU hurbilekoak izango diren, aztertutako hitzen bat partekatzen badute (Klein eta Licata, 2003; Reinert, 1996). Ondoren, *cluster* analisi hierarkiko beherakor bat egiten du Iramuteq-ek aipaturiko distantzia karratuen matrizearekin

Reinert metodoarekin burututako beste ikerketa batzuetan bezala (Vizeu eta Bousfield, 2009), klase edo gai nagusi bakoitzeko hitz garrantzitsuenak hiru irizpideren bidez sailkatu ziren: 1) Hitzaren errepikakortasun-maiztasuna klasean bertan 5 baino handiagoa izatea; 2) khi karratuaren asoziazio-probaren balioa klasearekiko  $\chi^2 \geq 32.85$ ;  $df = 1$  baino handiagoa izatea; eta 3) hitz horren % 50 edo gehiago klase horri egokitu izana.

Klase lexikalak edo txioetan errepikakorrek diren gai nagusiak identifikatu ostean, aldagai «pasibo»ekin (aldagai askeak) lotura esanguratsua duten azter daiteke. Gure kasuan, aldagai pasiboak publikatze-asteak izan ziren. Horretarako, txio bakoitza argitaratutako dataekin kodifikatuta sartu zen Iramuteq programan, eta horrela ECU bakoitza informazio horrekin lotuta geratu zen. Gainera, khi karratu estatistiko bat ere kalkulatu zuen Iramuteq-ek, klase bakoitzak aldagai askearekin duen lotura zehazteko. Horrela, ikertzaileak klase eta estatistika-irizpide batzuk lortzen ditu hitz tipiko eta testu tipikoen segmentu (gure kasuan txio) moduan. Horrek klaseak edo gai nagusiak mundu lexikal gisa interpretatzeko oinarria eskaintzen du (Schonhardt-Bailey, 2013).


Bukatzeko, analisi osagarri gisa, korrespondentzia aniztunen analisi faktoriala ere eskaintzen digu programa horrek. Gure kasuan, analisi hori erabiliko da unean uneko traolen jarraipena egiteko. Bai biktimarekiko traola babesleak, bai bortxaketaren kulturaren kontrako traolak baita traola antifeministak ere.

### 3. Emaitzak

#### 3.1. Txioen analisi lexikala

Iramuteq softwarearen bidez aztertutako txioen corpusak 108.045 hitz izan zituen, non 11.958 hitz bakarrak izan ziren. Analisi hierarkiko beherakorrak corpusa 2.543 ECUtan banatu zuen eta 5 klase eratorri ziren bakoitzeko hitzik esanguratsuenekin 1. irudian ikus daitekeen bezala.

**1. irudia. Asoziatio askeko cluster analisi beherakorreko dendograma, maiztasun handieneko hitzekin eta asoziatio-indize handiena duten hitzekin  $X^2(1), p < 0,001$ . Iturria: Lanketa propioa.**



Irudi horretan bildutako txio guztien artean aipatuenak diren gai nagusiak edo klaseak ikus ditzakegu, eta ikusten dugun bezala 5 dira. Ondoren, klase bakoitzaren barnean esanguratsuki garrantzitsuenak izan diren hitzak dauzkagu ( $X^2$  estatistikoaren bidez esanguratsuenetik ordenatzen hasita) azaldu digu programak. Guk ikertzaile gisa klase horiek izendatu ahal izan ditugu, izenburua jarriaz. Ondorengo lerroetan klase bakoitzean nabarmendu diren ideia garrantzitsuetan aipatuko ditugu.

Ordena kronologikoari jarraiki lehenengo klasea, «Berehalako sententziaren argitaratzea», 0 Astearekin lotuta agertu zen, hau da, sententziaren iragarpenaren aurreko asteen. Klase honek txioen % 13,8 biltzen zituen, horietako gehienek sententziaren argitaratzea berehalakoa zela ikusita sarean gaiarekiko arreta piztea zuten helburu. Klase honetako txio esanguratsuki pisutsuenak hauek lirateke: «Adi! Ostegunean, 1:00etan. #lamanada epaia argitaratuko da. Prestatu zaitetz! Gehienez 22 urteko kartzela zigorra talde bortxaketatik» (0 Astea;  $X^2 = 65,45$ ); «Oso adi egon! Bihar #lamanada kasuko sententzia argitaratuko da! Manifestazioak antolatzeke prest egon!» (0 Astea;  $X^2 = 45,85$ ).

Bigarrenik, eta lehenengo asteari, hau da, sententzia plazaratu eta ondorengo lehenengo asteari loturik bosgarren klasea dugu. Klase honek txioen % 33,8 bildu zituen, klaserik pisutsuena izanik eta «Sententziaren kontrako protestak» gisa izendatua izan zen. Klase honetako txio estatistikoki esanguratsuenek sententziak gertaera abusu sexual kontsideratzea eta ez bortxaketa edo eraso sexual gogorki salatu zuten: «Guztiok #lamanada auziko sententzia lotsagarriaren kontra! Ez da abusua bortxaketa da» (1 Astea;  $X^2 = 94,45$ ); «Bost gizonen emakume bat bortxatu zuten eta hiru epailek herrialde osoko emakumeak bortxatu gaituzte! #lamanada amesgaiztoa da!» (1 Astea;  $X^2 = 90,42$ ); «#lamanada. Biktima babestu beharra dugu eta legedia aldatu, ezin daiteke shock egoera plazerrarekin nahas dezakeen beste sententziarik egon! Lotsa ematen dit sententziak! Agintariek biktimaren alde zerbait egitea espero dut!» (1 Astea;  $X^2 = 87,63$ ); «#lamanada-ren absoluzioa eskatzeko banako botoa eman duen epaileak dionez, bortxaketa horretan berak plazerra eta gozamena ikusten ditu! #noesno (ez ezetz da) #Somoslamanada (gu gara taldea/manada) » (1 Astea;  $X^2 = 77,57$ ).

Bidegabekeria gisa hautemandako gertaera hori salatzen protestetarako dei masiboa egin zen, bai kalean bai sare sozialetan traola bereziak erabiliaz, besteak beste: #nosotrassomoslamanada (gu gara manada) ( $X^2 = 13,12$ ); #yositecreo (nik sinisten zaitut) ( $X^2 = 11,20$ ), #noesabusoesviolacion (ez da abusua, bortxaketa da) ( $X^2 = 9,04$ ), #noesno ( $X^2 = 7,14$ ); edo #noestassola (Ez zaude bakarrik) ( $X^2 = 4,89$ ). Protestetarako deian adibide ondorengo txioak ditugu: «5 aldiz bortxatua izana ez da sexu abusua #lamanada #noesabusoesviolacion (ez da abusua bortxaketa da) #Yositecreo (nik sinizten zaitut) #noesno (ez ezetz da) manifestazio ikusgarria justizia ministerioaren aurrean, #noestassola (ez zaude bakarrik) (1 Astea;  $X^2 = 97,43$ )»; «Gizarte gisa, inoiz ez dugu ahaztuko hau, #lamanada sententziaren aurka goazen protestara!» (1 Astea;  $X^2 = 86,56$ ).

Azkenik, bostgarren klase honekin amaitzeko, txiolariak bereziki gogoan izan zuten Nagore Laffageren hilketak. Iruindar gaztea 2008ko uztailaren 7an, San Fermin egunez ere, hil zuen José Diego Yllanes-ek, berarekin sexu-harremanak izateari uko egin ostean kolpatu, ito eta erail zuen (Duva eta Azurmendi, 2008). Honela zioten klase honetako txio estatistikoki esanguratsuenek: «Duela 10 urteko San Ferminetan Nagorek bere bortxatzaileari aurre egin zion! Berak kolpeka hil zuen. 8 urte pasata libre dago. Mezua: erasotzaileari aurka egiten badiozu hil egingo zaituzte. Gaurko mezua: erasotzaileari aurka egiten ez badiozu, ez zaituzte sinestuko #lamanada #justiciapatriarcal (justizia patriarkala) #noesabusoesviolacion (ez da abusua bortxaketa da)» (1 Astea;  $X^2 = 83,45$ ). «Haserre justizia jauregiaren aurrean #lamanada sententziagatik. Bortxatzea merkea da. Argi geratu zen Nagoreren kasuan eta hau jarraipena baino ez da! Gainera haletako batzuk segurtasun indarren parte dira, nori eskatu behar diogu laguntzeko? #lamanada #justiciapatriarcal (justizia patriarkala) #noesno (ez ezetz da) #yositecreo (nik sinizten zaitut)» (1 Astea;  $X^2 = 77,86$ ).

Ordena kronologikoari jarraiki, eta sententziaren osteko bigarren astearekin lotuta laugarren klasea ageri da «Biktimari errua egotzi nahi diotenen kontrako aldarriak»,



zeinak txioen % 14,29 biltzen dituen. Klase honetan, errua egozteko saiakerak bai elkarteek bai banakoek (Ricardo Gonzalez epaileak kasu) egin zituztela salatzen da, «La Manada»ko bost gizonak defendatuaz edota biktima eta bere pribatutasuna ez errespetatuaz. Klase honen *tweet* estatistikoki esanguratsuenak honako hauek dira: «Emakumeak defendatzen dituela dioen PPK 9.000 € eman dizkio, # lamanada defendatzen duen elkarte bati!» (2 Astea;  $X^2 = 77,13$ ); «#lamanada-ri buruz: Botere judiziala zaborra da! biktimaren datu pribatuak zabaltzen dituzten sasikumeekin batera» (2 Astea;  $X^2 = 65,78$ ); «Apurka-apurka, Ricardo Gonzalez epailearen berezitasunak aurkitzen ari gara: eskerrik asko biktima ez kondenatzeagatik bera bortxatu zuten #lamanada-ko gizon koitaduak iraintzeagatik! Sinestezina da!» (2 Astea;  $X^2 = 56,65$ ).

Azkenik, sententzia publikatu osteko hirugarren astearekin lotuta guztiz aurkakoak diren bi klase agertu dira. Lehenik, hirugarren klasean «Diskurtso antifeminista» dugu, txioen % 14,29 bilduaz. Diskurtso antifeministak, klase honetan esanguratsuki garrantzitsu izan ziren hainbat traola erabili zituen, besteak beste, #stopfeminismoradical (gelditu feminismo erradikala) ( $X^2 = 21,00$ ) edo # stopfeminazi ( $X^2 = 20,00$ ). Klase honetan biktimari errua egozten zaio, «La Manada»ko bost erasotzaileak gudari eta errugabe gisa irudikatzen diren bitartean. Gainera, biktima defendatzen duen mugimendu feminista gizartearentzako gaitz bezala definitzen da. Klase honetako txio estatistikoki esanguratsuenak hauek dira: «Zu izan zintezke, zure anaia, zure lehengusua edota zure semea gezurretako akusazioen hurrengo biktima #lamanada den gisa! Ekin orain! #Stopfeminazi #stopfeminismoradical #yonotecreo (nik ez zaitut sinisten)» (3 Astea;  $X^2 = 56,73$ ); «Feministek diotena egia balitz, Espainiar erdiak kartzelan egongo lirateke, horregatik, premiazko neurriak hartu behar ditugu gerlari hauek defendatzeko #lamanda #stopfeminazis #stopfeminismoradical» (3 Astea;  $X^2 = 43,67$ ); «#lamanada-ko neskatoaren abokatuak ez ditu bera artatu zuten polizia lekukoak epaira deitu. Zer ezkutatu nahi du? Arraro, arraro, arraroa #yonotecreo (nik ez zaitut sinisten)» (3 Astea;  $X^2 = 34,87$ ).


Halere, diskurtso antifeminista hori eta, orokorrean, bortxaketaren kultura salatuz hirugarren aste horretan bertan bigarren klasea ere agertu zen «Salatu bortxaketaren kultura Interneten» deitu duguna eta txioen % 23,81 batu zituen. Klase honek bereziki salatzen ditu «forocoches» gisako Interneteko foroak: «#forocoches-en #lamanada-ko biktimarekiko post iraingarriak daude. Erabiltzaileetako batek biktima identifikatu duela aldarrikatzen du eta baita foro honetara bere argazki bat igo duela ere #stopforocoches» (3 Astea;  $X^2 = 66,57$ ); «#forocoches-eko erabiltzaileek #lamanada laguntzeko diru-bilketa bat egin nahi dute. #forocoches ixteaz gain gobernuek horrelako foroei pistak ematen dizkieten komunikabideen aurka ere egin beharko luke» (3 Astea;  $X^2 = 54,54$ ). Horrez gain, sarean biktima erasotu zuten beste hainbat banako eta talde ere salatu ziren klase honetan, besteak beste honelako txioen bidez: «2016an sexismoagatik zigortutako Santiagoko Unibertsitateko irakasle batek orain #lamanada biktimak gozatu egin zuela dio! Pertsonaia hau behin betiko irakasle gisa baztertu izan behar da» (3 Astea;  $X^2 = 43,87$ ).

### 3.2. Traolen analisia

Txioen analisisian ikusi ahal izan dugu «La Manada» auzi honen jarraipena egiteko hainbat traola erabili zirela. Horietako batzuk klase konkretuetara lotu ziren esanguratsuki; beste batzuk ez, ordea. Analisi osagarri gisa maiztasun altuenak izan zituzten traolek aztertutako lau asteetan zehar izandako bilakaera ikertu genuen, eta horretarako Iramuteq softwarearen bidez hitz horietako bakoitzaren jarraipena egin zen. Grafikoetako puntuazio positiboek, hau da y ardatzean goranzko puntuazioek traola hori denbora epe horretan esanguratsuki nabarmendu zela esan nahi dute, zenbat eta altuagoa, geroz eta nabarmenagoa izan zelarik. Kontrara, puntuazio negatiboek epe horretan ez zela agertu edo aipatu esan nahi dute.

Hiru traola talde aztertu genituen lehenik biktima babestea helburu zutenak, besteak beste #noestassola (ez zaude bakarrik), #nosotrassomoslanamada, #estaesnuestramanada (gu gara manada/ taldea), #yositecreohermana (nik sinisten zaitut ahizpa), #noesabusoesviolacion (ez da abusua bortxaketa da), #yositecreo (nik sinisten zaitut) edota #noesno (ez ezetz da). 2. irudian ikus daitekeen bezala, traola horiek bereziki sententzia argitaratuta eta ondorengo astean nabarmendu ziren, eta bigarren eta hirugarren asteetan asko gutxitu ziren.


**2. irudia. Biktima babesteko traolen erabilera analisi-asteetan zehar. Iturria: Lanketa propioa.**




Bigarren taldean salaketa-traolak bildu genituen, justizia patriarkala, bortxaketa-ren kultura edota *forocoches*-en antzeko foro sexistak salatzen zituztenak. 3. irudian ikus dezakegun bezala, justizia patriarkala dela salatzea bereziki sententzia atera eta ondorengo astean nabarmendu zen. Ondorengoetan bortxaketaren kulturaren salaketa eta *forocoches*-en kontrako aldarriak nabarmendu ziren.

Azkenik hirugarren taldean biktimaren eta diskurtso feministaren kontrako traolak dauzkagu, zeinak sententzia argitaratu eta 3. astean nabarmenki nagusitu ziren. Gainera 4. irudia 3. irudiarekin konparatzen badugu, ikus dezakegu nola traola horiek oso indartsuak izan ziren sareetan, aste horretan bereziki maila altuetara helduaz.

**3. irudia. Salaketa-traolen erabilera analisi-asteetan zehar.**  
**Iturria: Lanketa propioa.**



**4. irudia. Traola antifeministen erabilera analisi-asteetan zehar.**  
**Iturria: Lanketa propioa.**



#### 4. Eztabaida

Ikerketa honen bidez, «La Manada» auziari atxikitako gizarte-irudikapenak aztertu nahi izan ditugu. Horretarako Twitter erabili dugu iturri gisa, auziaren jarraipena momentu errealean eta era naturalista batean lantzea ahalbidetu eta ulertzen lagundu baitigu nola eman zion gizarteak esanahia ordena soziala mehatxatu duen sexu-eraso horri. Twitterren jorraturiko «La Manada»-ri buruzko diskurtsoak agerian utzi du sexu-eraso horri buruzko gizarte-jakintza hainbat uste eta balio kulturelek xehatu zutela, auzi polemiko hori inguratu zuten testuinguru sozial eta judiziala baldintzatuz.

«La Manada» auzia mugarri esanguratsua izan da gure gizarteak sexu-erasoei buruz eraiki dituen gizarte-igurikapenak lantze aldera, eta gure emaitzek islatu dute *Collective Symbolic Coping* prozesuaren hainbat fase bete dituela. Izan ere, gure analisietan, CSCaren lau faseetako bi argi eta garbi identifikatu dira, beste biak ez ordea, baina hori espero zitekeen oraindik gertaeretatik denbora askorik ez baita pasa. Hasteko, kontzientzia hartzeko prozesua nahita aktibatu zuten hainbat txiolarik sententziaren iragarpenaren aurreko egunetan, agenda setting prozesuaren bidez (McCombs, 2004), bereziki jendea adi eta prest egoteko eskatuaz. Hau da, «La Manada» auziari buruzko eztabaida sare sozialetan piztuta erabiltzaileek gaia gizartearentzako esanguratsu eta garrantzitsu bihurtu nahi izan zuten.

Gainera, Twitterreko diskurtsoan dibergentzia-fase argia ere behatu ahal izan da, gaiari buruzko interpretazio desberdinak plazaratu eta kontrajarri baitziren, eztabaida eta jarraipen publiko sutsua sortuz. Fase horren barnean literatura zientifiko feministan oparo landu izan diren hainbat gai islatu ziren.

Lehenik eta behin, mugimendu feminista eta haren diskurtsoa argi eta garbi nabarmendu ziren Twitterren, esate baterako, sexu-indarkeriaren oinarri patriarkala salatuaz eta hari aurre egiteko eskatuaz (Durham, 2013). Izan ere, eraso sexual horrek ez zuen soilik sare sozialen bidez deitutako aurrekaririk gabeko erantzuna izan kaleetan, sareetan ere bortxaketaren kulturari buruzko hausnarketa esanguratsua sortzea lortu zuen.

Fase horretan aipatutako beste gai garrantzitsuen artean, gainera, «La Manada» kasua maila judizialean eta hainbaten artean baita jendartean ere interpretatua izan den era bortxaketaren inguruko hainbat mitorekin bat etorri da. Biktimari errua egotzi nahian eta aldi berean erasotzaileak babestuz sarri aipatu zen jai-giroan izaniko gertaera izan zela. Are gehiago, sententziak berak aldarrikatu zuen biktima «aktiboki defendatu» ez zenez, ez zela bortxaketa edo sexu-erasorik egon, abusua baizik. Gertaeraren interpretazio hori bereziki iraingarri eta mingarri hauteman zuten txiolariek, are gehiago bere erasotzailetik defendatu eta ondorioz eraila izan zen Nagore Laffageren kasua birbizarazi baitziren. Bortxaketaren kultura eta mitoetan oinarritutako iritziak onartezinak direla kontsideratuaz, sareetan bereziki kritikatuak izan ziren horrelako sexu-erasoak jai-giroan ekidin ezinak, barkatu beharrekoak, gozagarriak edota nahitaezkoak direla defendatu zutenak. Izan ere, «La Manada» auziko sententzia bortxaketaren kulturaren barnean ernatutako justizia patriarkalaren emaitza gisa deskribatu zuten hainbat txiolarik. Sexu-erasoen kasuetan justiziak

benetan balio duen landu izan dute hainbat ikerketak (Golding, Lynch, Malik eta Foster-Gimbel, 2018), eta emaitza gisa ondorioztatu dute justizia-eragileetako erdiek bortxaketaren inguruko hainbat mito sakonki barneratuak zeuzkatela (Gyls eta McNamara, 1996). Biktimaren eta biktima artatzen duten polizien arteko harremana ere mito horiek esanguratsuki baldintzatzen dutela ere frogatu da (Page, 2008). Beraz, horrek guztiak argi uzten digu bortxaketaren kultura gizarte mailan ez ezik, maila judizial eta polizialean ere landu beharko litzatekeela, «La Manada» auziaren ondorioz eskatu izan den bezala. Hau da, bortxaketa bera birkontzeptualizatu beharra dago bortxaketaren kultura irauliaz, eta horretarako beharrezkoa da aktibista eta ikertzaile feministek gaian lanketa irmoa egitea (Mardorossian, 2002). Bortxaketaren kultura hainbat gizarte-praktikatan ainguratua dago maila legal zein kulturalean (Keller *et al.*, 2018; Mendes 2015) eta hori da bereziki sare sozialen bidez ikusarazi beharrezkoa jarraitzaileen pentsamoldea aldatuaz eta formazio feminista eskainiaz (Sill *et al.*, 2016).

Dibergentzia-faseari jarraiki, hainbat kasutan sare sozialak «La Manada»ren biktima iraintzeko erabili izan ziren, baina orokorrean askoz zabalagoa izan zen Twitterren biktima babestuz diskurtso horien kontra sortutako mugimendua. Beraz, diskurtso feminista eta antipatriarkalak sortu eta zabalduaz, bortxaketaren kulturari errotik aurre egin nahi izan zioten hainbat txiolarik antzeko ildoko aurretiazko hainbat kasutan gertatu izan den erara (Keller, 2015; Keller *et al.*, 2018; Mendes, 2015; Shaw, 2012; Thrift, 2014). Azpimarratu beharrezkoa da ezen aktibismo feminista digital honek eragin indartsua izan zuela «La Manada»ren kasuan, bai online baina baita kaleetan eta hari lotutako irudikapen sozialetan ere. Antzeko ekintza feministetan gertatu izan den antzera, #metoo kanpaina kasu, «La Manada»ren estaldura digitalak ere ekintza eta aldaketa sozial erreala bultzatu zuen kaleetan eta gizartean. Horren isla dugu Espainiako gobernuak sexu-erasoak epaitzeko legea berrikustea eta aldatzea erabaki izana (Alvarez, Lorente eta Cata, 2018).

Halere, aipatu beharra dugu, arestian esan bezala eta beste hainbat sexu-eraso kasutan gertatu izan den bezala, «La Manada» auzia salatzeko sortutako mugimenduari kontrako erantzuna eman eta ikusarazi nahi izan zuen mugimendu antifeminista ere plazaratu zela Twitterren (Jackson, 2018; Keller *et al.*, 2018). Kasu honetan, diskurtso antifeministak argudiatu zuen edozein gizon izan daitekeela bortxaketaz akusatua feminismo erradikalak sortutako «gizonen kontrako mugimenduaren» ondorioz. Esanguratsua da, honenbestez, mugimendu horrek erabilitako traola gehienek feminismoaren kontra egitea zutela helburu, besteak beste, #stopfeminismoradical edota #stopfeminazi bezalakoak erabilia. Bukatzeko, kontuan edukitzekoa da mugimendu antifeminista hori auzia argitaratu eta lehen uneetan, hau da mugimendu feminista indartsu ageri izan zen lehen uneetan, ez zela ikusgarri egin. Aste batzuk igaro arte itxaron zuen hasierako gizarte-haserrea baretu edo ahazten joan arte, eta momentu horretaz aprobetxatu zen sareetan presentzia nabarmena izateko.

Beraz, aztertu berri dugun dibergentzia-fasean «La Manada» kasuak, bai sare sozialetan bai eta gizarte mailan ere, adiera anitz izan zituen, berari loturiko esanahiek alor ezberdinetan era kontrajarrian eragin zutelarik. Denborarekin adiera

horietako batzuk baztertuak izango dira eta beste batzuk onartuak (Sperber eta Wilson, 1986), eta azkenik gizarteak onartuko duen kontakizun bateratu bat sortuko da (Bartlett, 1932) CSCaren azken fasera helduz. Baina nabarmena den bezala, oraindik kasua pil-pilean egonda ezinezkoa da ez normalizazio- ez konbergentzia-fase horietara heltzea, eta denboraren poderioz auziaren esanahiak duen bilakaera aztertu beharko litzateke berari buruzko azken irudikapena nola gauzatzen den erdiesteko.

CSCak defendatzen du gertakari berriei buruzko gizarte-irudikapenak gizarte-ulermena gauzatu baino lehen alda daitezkeela. Irudikapen eta jakintza berri hauek ordura arteko eskemak apurtu eta berriak gauzatzera eraman gaitzakete (Wagner *et al.*, 2002). «La Manada» auzia definizio horrekin bat etorriko litzateke, zeren inflexio-puntu bat izan baita gure gizarteak eraso sexualak eta haien trataera mediatiko, sozial eta judiziala ulertzeko orduan. Honenbestez, ezinbesteko deritzogu dibergentzia-fasean plazaratutako diskurtso feminista horrek indarrean jarraitzeari, konbergentzia- eta normalizazio-faseetara heldu eta bertan gailendu arte. Hori izango da bortxaketaren kultura eta mitoekin hausteko era bakarra, zeren horien onarpenik eza gizartearen igurikapenetan ainguratzea lortzea baita horiek maila sozial, juridiko, polizial edota mediatikotik ezabatzeko bidea.

Auzi hau Twitterren aztertu izanak balio erantsia eskaini dio ikerketa honi, Twitterreko diskurtsoa jakintza berrien eraikuntzarekin batera garatzen baita, eta sarritan prozesu honetan eragin zuzena izatea ere lortzen du ikerketa honetan ikusi ahal izan dugun bezala. Hau da, Twitterren gauzatutako «La Manada» auziari buruzko diskurtso publiko eta parte-hartzaileak banakoak ere jakintzaren eraikuntzan agente aktibo bihurtu ditu, eta ez soilik orain arte bezala komunikabide boteretsuak.

Ikerlan honek hainbat muga izan ditzake, hasteko Twitterreko erabiltzaileak ez dira gizarte osoaren isla eta, beraz, gizarte guztiko taldeen ideiak ez dira diskurtso horietan islatuta egongo. Bestalde, aztertutako denbora-epea ere laburra da, azterketa hau osatzeko beharrezkoa litzateke hilabete edo urteetan zehar gaiaren jarraipenarekin jarraitzea.

Laburbilduz, ikerketa honek berebiziko gakoak eskaini dizkigu sare sozialetako diskurtsoak eraso sexualei buruzko gizarte-jakintza nola isla eta transforma dezakeen ulertzeko. Gizarte moderno kontsideratuetan ere, oraindik bortxaketaren kultura indartsu iltzatua dago gure irudikapenetan eta horren aurrean sare sozialen bidezko komunikazio parte-hartzailea ezinbesteko lanabes bilakatzen ari da haren kontra diskurtso feministak erabiliaz lan egiteko.

## 5. Bibliografia

- Alvarez, P. (2018): « Juristas y expertas feministas critican la sentencia de La Manada: “Es una vergüenza”», *El País*, 2018ko apirilaren 26a, <[https://elpais.com/politica/2018/04/26/actualidad/1524732623\\_919919.html](https://elpais.com/politica/2018/04/26/actualidad/1524732623_919919.html)> helbidean eskuratua.
- Alvarez, P.; Lorente, J. eta Cata, J. (2018): « Spanish government considers legal reform after court releases “Manada” sex-attack culprits», *El País*, 2018ko ekainaren 22a, <[https://elpais.com/elpais/2018/06/22/inenglish/1529650540\\_802576.html](https://elpais.com/elpais/2018/06/22/inenglish/1529650540_802576.html)> helbidean eskuratua.
- Asenjo, I. (2018): «“¡No es abuso, es violación!”, indignación y solidaridad en las redes sociales [“It’s not abuse, it’s rape!”, Indignation and solidarity in social networks]», *La Rioja*, 2018ko apirilaren 28a, <<https://www.larioja.com/sociedad/manada-feminista-sanfermin-sentencia-redes-sociales-20180426105532-ntrc.html>> helbidean eskuratua.
- Baer, H. (2016): «Redoing feminism: Digital activism, body politics and neoliberalism», *Feminist Media Studies*, 16, 17-34.
- Barca, L. (2018): «The agency factor: neoliberal configurations of risk in news discourse on the Steubenville, Ohio rape case», *Critical discourse studies*, 15(3), 265-284, <<https://doi.org/10.1080/17405904.2017.1408476>>.
- Bartlett F. (1932): *Remembering*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Boswell, A. eta Spade, J. (1996): «Fraternities and collegiate rape culture: why are some fraternities more dangerous places for women?», *Gender & Society*, 10(2), 133-147.
- Brown, A.L.; Testa, M. eta Messman-Moore, T.L. (2007): «Psychological consequences of sexual victimization resulting from force, incapacitation, or verbal coercion», *Violence Against Women*, 15(8), 898-919.
- Burt, M. (1980): «Cultural myths and support for rape», *Journal of Personality and Social Psychology*, 38, 217-230.
- Ceberio, M. (2018): «La Manada ruling sparks fierce debate over definition of sexual violence», *El País*, 2018ko apirilaren 27a, <[https://elpais.com/elpais/2018/04/27/inenglish/1524824382\\_557525.html](https://elpais.com/elpais/2018/04/27/inenglish/1524824382_557525.html)> helbidean eskuratua.
- Chattopadhyay, S. (2011): «Online Activism for a Heterogeneous Time: The Pink Chaddi Campaign and the Social Media in India», *Proteus*, 27(1), 63-67.
- Durham, M. (2013): «Vicious assault shakes Texas town: The politics of gender violence in The New York Times’ coverage of a schoolgirl’s gang rape», *Journalism Studies*, 14(1), 1-12.
- Duva, J. eta Azurmendi, E. (2008): «“He hecho algo muy malo. Tengo a una chica muerta”. El psiquiatra que mató a una enfermera llamó a un amigo para deshacerse del cadáver», *El País*, 2008ko uztailaren 13a, <[https://elpais.com/diario/2008/07/13/espana/1215900018\\_850215.html](https://elpais.com/diario/2008/07/13/espana/1215900018_850215.html)> helbidean eskuratua.
- Duveen, G. eta Lloyd, B. (1990): *Social representations and the development of knowledge*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Edwards, K; Turchik, J.; Dardis, C.; Reynolds, N. eta Gidycz, C. (2011). «Rape myths: History, individual and institutional-level presence, and implications for change», *Sex Roles*, 65(11-12), 761-773, DOI: 10.1007/s11199-011-9943-2.
- Gilles, I.; Bangerter, A.; Clemence, A.; Green, E.; Krings, F.; Mouton, A.; Rigaud, D.; Staerkle, C. eta Wagner-Egger, P. (2013): «Collective symbolic coping with disease threat and othering: A case study of avian influenza», *British Journal of Social Psychology*, 52(1), 83-102, <<http://dx.doi.org/10.1111/j.2044-8309.2011.02048.x>>.

- Gerbaudo, P. (2012): *Tweets and the Streets: Social Media and Contemporary Activism*, Pluto Press, Londres.
- Golding, J.; Lynch, K.; Malik, S. eta Foster-Gimbel, O. (2018). «Justice Served? Perceptions of Plea Bargaining Involving a Sexual Assault in Child and Adult Females», *Criminal justice and behavior*, 45(4), 503-518, DOI: 10.1177/0093854817743538.
- Gyllys, J.A. eta McNamara, R. (1996): «Acceptance of rape myths among prosecuting attorneys», *Psychological Reports*, 79, 15-18.
- Jackson, S. (2018): «Young feminists, feminism and digital media», *Feminism & Psychology*, 28(1), 32-49, DOI: 10.1177/0959353517716952.
- Jones, S. (2018): «Protests in Spain as five men cleared of teenager's gang rape», *The Guardian*, 2018ko apirilaren 26a, <<https://www.theguardian.com/world/2018/apr/26/protests-spain-five-men-cleared-of-teenagers-gang-rape-pamplona>> helbidean eskuratua.
- Juris, J. (2008): *Networking Futures: The Movements Against Corporate Globalization*, Duke University Press, Durham, NC.
- Keller, J. (2015): «Girls' feminist blogging in a postfeminist age», Routledge, New York, NY.
- Keller, J.; Mendes, K. eta Ringrose, J. (2018): «Speaking unspeakable things: Documenting digital feminist responses to rape culture», *Journal of Gender Studies*, 27(1), 22-36.
- Klein, O. eta Licata, L. (2003): «When group representations serve social change: The speeches of Patrice Lumumba during the Congolese decolonization», *British Journal of social Psychology*, 42, 571-593.
- Kronberger, N. eta Wagner, W. (2000): « Keywords in context: the statistical analysis of text and open-ended responses», in M. Bauer eta G. Gaskell (ed.), *Methods for qualitative analysis*, Sage, Londres, 299-317.
- Lahlou, S. (1996a): «La modélisation de représentations sociales à partir de l'analyse d'un corpus de définitions», in E. Martin (ed.), *Informatique Textuelle. Etudes de sémantique lexicale*, Didier Erudition, Paris, 55-98.
- Lahlou, S. (1996b): «A method to extract social representations from linguistic corpora», *Japanese Journal of Experimental Social Psychology*, 35(3), 278-291.
- Lim, M. (2012): «Clicks, Cabs, and Coffee Houses: Social Media and Oppositional Movements in Egypt, 2004-2011», *Journal of Communication*, 62, 231-248.
- McCombs, M. (2004): *Setting the agenda: Mass media and public opinion*, Polity Press, Cambridge.
- Mardorossian, C.M. (2002): «Toward a New Feminist Theory of Rape», *Signs*, 27(3), 743-775, DOI: 10.1086/337938.
- Mendes, K. (2015): *SlutWalk: Feminism, activism eta media*, Palgrave Macmillan, Basingstoke, UK.
- Moody-Ramirez, M.; Lewis, T. eta Murray, B. (2015): «The 2013 Steubenville rape case: An examination of framing in newspapers and user-generated content», *Southwestern Mass Communication Journal*, 30(2), 1-22.
- Moscovici, S. (1984): «The phenomenon of social representations», in R. Farr eta S. Moscovici (ed.), *Social Representations*, Cambridge University Press, Cambridge, 3-71.
- Moscovici, S. (1988): «Notes towards a description of social representations», *European Journal of Social Psychology*, 18, 211-250, <<http://dx.doi.org/10.1002/ejsp.2420180303>>.
- Murthy, D. (2010): «Towards a sociological understanding of social media: Theorizing twitter», *Sociology*, 46(6), 1.059-1.073.



- Nuñez, S. (2011): «Feminist cyberactivism: Violence against women, internet politics, and Spanish feminist praxis online», *Continuum Journal of Media eta Cultural Studies*, 25(3), 333-346, DOI: 10.1080/10304312.2011.562964.
- O'Hara, S. (2012): «Monsters, playboys, virgins, and whores: Rape myths in the news media's coverage of sexual violence», *Language and Literature*, 21(3), 247-259.
- Orr, E.; Sagi, S. eta Bar-On, D. (2000): «Social representations in use: Israeli and Palestinian high school students' collective coping and defence», *Papers on Social Representations-Online*, 9, 2.1-2.20.
- Page, A. (2008): «Judging women and defining crime: Police officers' attitudes toward women and rape», *Sociological Spectrum*, 28(4), 389-411.
- Payne, D.; Lonsway, K. eta Fitzgerald, L. (1999): «Rape myth acceptance: Exploration of its structure and its measurement using the Illinois rape myth acceptance scale», *Journal of Research in Personality*, 33(1), 27-68.
- Pennebaker, J.W. eta Harber, K. (1993): «A social stage model of collective coping: The Persian Gulf and other natural disasters», *Journal of Social Issues*, 49, 125-145, <<http://dx.doi.org/10.1111/j.1540-4560.1993.tb01184.x>>.
- Pennington, R. eta Birthisel, J. (2016): «When new media make news: Framing technology and sexual assault in the Steubedunville rape case», *New Media eta Society*, 18(11), 2.435-2.451.
- Reinert, M. (1983): «Une méthode de classification descendante hiérarchique: application à l'analyse lexicale par contexte [A method of descending hierarchical classification: application to the lexical analysis context]», *Les cahiers de l'analyse des données*, 8(2), 187-198.
- Reinert, M. (1990): «Alceste, une méthode d'analyse des données textuelles. Application au texte "Aurélia" de Gérard de Nerval», *Bulletin de Méthodologie Sociologique*, 26(1), 25-54, DOI:10.1177/075910639002600103.
- Reinert, M. (1996): *Alceste* (Version 3.0), Images, Tolosa Okzitania.
- Rentschler, C. (2014): «Rape culture and the feminist politics of social media», *Girlhood Studies*, 7(1), 65-82.
- Ryan, W. (1971): *Blaming the victim*, Pantheon Books, New York, NY.
- Sacks, M., Ackerman, A. R., eta Shlosberg, A. (2018). «Rape myths in the media: a content analysis of local newspaper reporting in the United States», *Deviant Behaviour*, 39(9), 1.237-1.246, <<https://doi.org/10.1080/01639625.2017.1410608>>.
- Schonhardt-Bailey, C. (2013): *Deliberating American monetary policy: a textual analysis*, MIT Press, Cambridge.
- Shaw, F. (2012): «"Hottest 100 Women": Cross-Platform Discursive Activism in Feminist Blogging Networks», *Australia Feminist Studies*, 27(74), 373-87.
- Sills, S.; Pickens, C.; Beach, K.; Jones, L.; Calder-Dawe, O.; Benton-Greig, P. eta Gavey, N. (2016): «Rape culture and social media: Young critics and a feminist counterpublic», *Feminist Media Studies*, 16(6), 1-17.
- Sperber, D. eta Wilson, D. (1986): *Relevance-comunication and cognition*. Blackwell, Oxford.
- Stubbs-Richardson, M.; Rader, N. eta Cosby, A. (2018): «Tweeting rape culture: Examining portrayals of victim blaming in discussions of sexual assault cases on Twitter», *Feminism & Psychology*, 28(1), 90-108, DOI: 10.1177/0959353517715874.
- Thrift, S. (2014): «#YesAllWomen as Feminist Meme Event», *Feminist Media Studies*, 14(6), 1.090-1.092.
- Turley, E. eta Fisher, J. (2018): «Tweeting back while shouting back: Social media and feminist activism», *Feminism & Psychology*, 28(1), 128-132, DOI: 10.1177/0959353517715875.

- Vizeu, B. eta Bousfield, A. (2009): «Social representation, risk behaviours and AIDS», *The Spanish Journal of Psychology*, 12(2), 565-575.
- Wagner, W. (1998): «Social representations and beyond-brute facts, symbolic coping and domesticated worlds», *Culture and Psychology*, 4, 297-329, <<http://dx.doi.org/10.1177/1354067X9800400302>>.
- Wagner, W. eta Hayes, N. (2005): *Everyday discourse and common sense: The theory of social representations*, Palgrave Macmillan, Basingstoke, Ingalaterra.
- Wagner, W.; Kronberger, N. eta Seifert, F. (2002): «Collective symbolic coping with new technology: Knowledge, images and public discourse», *British Journal of Social Psychology*, 41, 323-343, DOI: 10.1348/014466602760344241.
- Waterhouse-Watson, D. (2011): «(Un)reasonable doubt: a “narrative immunity” for footballers against sexual assault allegations», *M/C Journal*, 14(1), 7.
- Wellman, A.; Reddington, F. eta Clark, K. (2017): «What’s Trending? #SexualAssault: An Exploratory Study of Social Media Coverage of Teen Sexual Assaults», *Criminology, Criminal Justice, Law & Societ*, 18(1), 88-105.
- Westerman, D.; Spence, P. eta Heide, B. (2014): «Social media as information source: Recency of updates and credibility of information», *Journal of Computer-Mediated Communication*, 19(2), 171-183.
- Woods, H.S. (2014): «Anonymous, Steubenville, and the politics of visibility: Questions of virality and exposure in the case of #OPRollRedRoll and #OccupySteubenville», *Feminist Media Studies*, 14(6), 1096-1.



